

FUNTSEZKO JARDUERAK

Lehenik, lehengaiak eskuratuko ditugu. Horretarako telak enpresa ezberdinei erosiko dizkiegu. Jarraitzeko, sandaliak ekoizteko beharrezkoa den kortxoak lortzeko bulegoko materiala birziklatzen duen enpresa batekin hitzarmen batera iritsiko gara gehiago erabili ezin diren kortsozko taulak erosiko dizkiegu gure sandaliak ekoizteko. Horrez gain, gure inguruko sagardotegi eta upeltegi desberdinekin akordio batera iritsiko gara erabiltzen dituzten kortxoak portzentai bat erosteko.

Bigarrenik, arropa diseinatuko dugu. Horretarako ikerketa bat egingo dugu modan dagoen arropa behatzeko. Gainera, pil pilean dauden pelikulak, serieak... aztertuko ditugu, eta horietan oinarrituz gure diseinuak sortuko ditugu.

Hirugarrenik, produktuak ekoiziko dugu. Hiruzpalau langile kontratatuko ditugu gure produktuak josi eta gure enpresaren logotipoa bordatzeko. Gerora, produktuen eskaria handituko balitz, langile gehiago kontratatuko genituzke, eskariari erantzun ahal izateko.

Laugarrenik, marketing kanpaina bat egingo dugu. Kanpaina hau zabaltzeko baliabide desberdinak erabiliko ditugu: publizitatea (youtubeko anuntzioak, spotify-en anuntzioak, instagramean anuntzioak...)

Bostgarrenik, webgunearen kudeaketa ezinbestekoa da gure produktua saldu ahal izateko eta bezeroekin modu errazago batean harremanetan jartzeko.